

BOLEIBOLERAKO ARAU ESPEZIFIKOAK, 2020-2021 IKASTURTERAKOAK

1. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren izena

BOLEIBOLA

2. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren joko araudiak

Egokitzapenak beroketaren aurreko eta partidaren hasierako protokoloei dagozkie.

- 1.1 Beroketaren iraupena: 30 minutura arte.
- 1.2. Talde bakoitzak bere baloiak erabili beharko ditu.
- 1.3. Talde bakoitzak beroketa bere erdiko gunean egingo du. Sarea ez da erabiliko erasorako eta sakerako.
- 1.4. Ez da zozketarik egingo. Bertako taldeak aukeratuko du jokatzeko zelaia. Kanpokoak erabakiko du sakatu edo jaso.
- 1.5. Talde bakoitzak zelai finko bat izango du partida osoan, eta ez da aldaketarik egingo, ezta set artean ere.
- 1.6. Epaile bat bakarrik egongo da. Epaileak akta ere egingo du.
- 1.7. Jokatzen ari ez direnen artean 1,5 metroko distantzia utziko dute elkarren artean, eta maskara jantzita izango dute.

3. Kirol federazioek antolatutako txapelketetarako edo jardueretarako jarduketa arauak

- 3.1. Gaixo daudenek ez dute parte hartuko.
- 3.2. Une oro errespetatu beharko da segurtasun distantzia.
- 3.3. Sarreran tenperatura neurtuko da.
- 3.4. Beharrezko material guztia eraman. Jokalariak ez dute materialik partekatuko. Motxilak bankuetan utziko dira, haien artean 2 metroko distantziarekin.
- 3.5. Ura: jokalaria bakoitzak bere botila ekarriko du. Ezin da partekatu, inola ere.
- 3.6. Hidrogela eta garbitzeko material desinfektatzailea eskuragarri egongo dira boleibol instalazioan.
- 3.7. Jokatzeko baloia set bakoitza amaitutakoan garbituko da, substantzia desinfektatzaile batez.

4. Parte hartzen duten entitateetan egin beharreko entrenamenduetarako eta saioetarako jarduketa arauak.

Entrenamenduetan eta partidetan partaideen kontrol orri bat egin beharko da. Orri horretan pertsona horien izen-abizenak, telefono zenbakia eta kiroldegira iristean egun bakoitzean duten tenperatura azalduko da.